

Gure eguneroko Aberri-Eguna

Alderdi, 292. zk., 1974-03.

Giro gaiztoko *Aberri-Eguna* dugu aurten.

Eunka mutil espetxeratu, zigortu, eizatu, erbesteratu eta salatu eta gero, oraindik polizia zigor-bildurrik gabe nai duena egiteko aalmentzen duen lege berri bat pasa dute Madrid-en.

Nora goaz?

Arias Navarrok esandako itzak. Frankismoak orain arte esanak izan diren guzirik bezala, gezurrak gertatu dira. Idekitasunaren seinaleak eman bearrean, agindu bezala, Puig Antich katalandarra akatu dute, Bilbo-ko gotzaia keinadaka ibilli dute, eta aurrerantz izango dugunaren agergerri oberik ez dugu somatzen.

Egoera onetan, Aberri-Egunaren ispiritua nola erakutsi?

Ezin dugu gure erria dagoen baino geiago arrixkatu. Urteroko ospatze onek bere garrantzia badu ere, Aberri-Eguna urtean beinkoa delako asmoari ez diogu gure burua lotu bear. Aberria egunerokoa da; egunero bear dugu Aberria buru-biotzean bizirik euki; eta ez gu artuko gaituen Aberri lasai bat, aberri lotu, aberri zigortu bat, aberri espetxeratu bat, aberri eizatu bat, aberri atzerriratu bat baizik: eta atzerrian igesi edo espetxean edo zigorpean eta espetxeratua dagoen gure anaia gure Aberriaren zati bat eta agerkai bat bezala gogoratu.

Oiekin, gure artean Euzkadi-ren alde jokatzegatik nolabait estuasun eta neke-larrian dagoenarekin egoteko eguna da gure *eguneroko Aberri-Eguna*.

Ala ere, dena ez da iluna gure erriaren egoera onetan.

Berpizkundearen seinalea bixtan dela edozeinek ikusi dezake; ariman begirik badu beintzat. Batetik, Frankismoa badijoalako, noski. Baina ba da besterik. Adinez elduak direnen eta oraindik gazte direnen artean ez dugu leen ainbesteko leiza-zulorik ikusten. Tarte bai, noski: gainontzeko errietan nabari direnen antzekoa. Baina etorkizunak argi berri bat erakus nai diguen keinua nolabait somatzen asi da zenbait euskotar: gazteen arteko Espainikutsuko joerak geldi-aldi bat egin duela dirudi, eta naiz-eta gazte askorentzat ezker joerak bideak nabarmenki deigarriagoak izan, Euzkadikoari gero eta estuago lotuta doazela ikusi nai dugu.

Onak erretu eta itxaropendu bear gaitu.

Euzkadi ez da eskuindarrek edo ezkertarrek bakarka osatu lezaketen erria. Ezta fededunak bakarrik edo federik gabekoak bortxatuta egiten utziko dena ere. Klase neurri bakarra dela edo kapitalaren agindura makurtuta inolaz diktadura batek tajutuko duen erria ere ez.

Ez dugu inoiz orrelako erririk egiterik izango, eta egiterik izango bagendu ere ez genduke naiko.

Gure erriak, munduak berea duen garai bera bizi bearrean aurkitzen da, noski, eta batez ere European sortzen ari den giroan, eta demokrazia eta ezberdintzat onartuko

dituen askatasuna nai-eta-nai-ezko lege dugula onartuko duen askatasun bide zabal eta ireki batean.

Au da euskotarrok aurtengo Aberri-Egunean elkar senti arazi bear gaituen seinalea.

Gure arteakoak, gure artean aztertzeke eta lantzeke astia eta sasoia etorriko da gure leen lotzen gaituzten kateak apurtu eta gero. Leen, leengoaz oartu eta kezka gaitezen; gogo onekin lanean elkar errespetatzeko ispiritura ireki ditzagun buruak eta biotzak. Au izango da aurtengo Aberri-Egunean gure baitan egin genezaken lanik emankorra, bai Aberriarentzat nai dugun etorkizunerako eta baita gaur espetxean, zigorpean, iesi, atzerrian eta Frankismoaren oinpean bizi geran guzian pozerako ere.

Berpizkunde eguna argi eta poz-eguna bait da.